

**PROCESO DE PARTICIPACIÓN PARA LA
ELABORACIÓN DEL PLAN DE LA DIRECCIÓN
GENERAL DE CULTURA-INSTITUCIÓN
PRÍNCIPE DE VIANA.**

**VIANAKO PRINTZEA ERAKUNDEKO KULTURA
ZUZENDARITZA NAGUSIAREN EGITASMOA
BURUTZEKO PARTE HARTZE PROZESUA**

**REUNIÓN TERRITORIALES
ÁREA DE ESTELLA**

**LURRALDEKAKO BILERAK
LIZARRALDEA**

ESTELLA, 21 de septiembre de 2016

LIZARRAN, 2016ko irailaren 2016ean

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	1
2.-HELBURUAK ETA TAILERRAREN METODOLOGIA OROKORRA.....	2
3.-PARTE-HARTZAILEAK	3
4.-BILERAREN GARAPENA	4
5.- LABURBILKETA ETA AGURRA	10

1.-SARRERA

Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzeak Hiritar Parte-hartze prozesua garatzen ari da Zuzendaritzaren Egitasmoa burutzeko. Prozesu hau Maiatza eta Ekaina bitartean antolatu ziren gaikako bilera sektorialekin martxan jarri izan zen, hauek Nafarroako panorama kulturaren sektore ezberdinen informazioa eskaintzea eta iritzi ezberdinak jasotzea helburutzat zutelarik.

Behin bilera sektorialekin amaituta, lurraldekako parte-hartze bilerak antolatu egin ziren, Nafarroako zonalde ezberdinetan burutu izan zirelarik eta helburutzat Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa Nafarroako lurraldean zehar ezagutaraztea eta iritzi plural eta ezberdinagoak jasotzea zituztelarik.

Dokumentu-akta honek Lizarrako Karlismoaren Museoan 2016ko irailaren 21ean garatu zen bileraren inguruko informazioa biltzen du.

Bilera honetan parte hartzeko deialdia irekia izan zen, deialdia batez ere zonaldeko kultura agente ezberdinei zuzendu izan zelarik (koordinatzaileak, ordezkari politikoak, elkarten ordezkariak, enpresak, etab.).

2.-HELBURUAK ETA TAILERRAREN METODOLOGIA OROKORRA

Lizarrako lurraldeko bilerak 2016ko irailaren 21ean garatu zen Karlismoaren Musean 17:00 eta 19:00 orduen bitartean.

Bilerara erakunde instituzional, elkarte eta enpresariak ziren 20 pertsona bertaratu ziren, guztiek kultura arloarekin zerikusia zutena.

Tailerraren **helburuak** ondorengoak ziren:

1. Parte-hartze Prozesua aurkeztea lurraldekako fasean.
2. Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoa aurkeztea.
3. Iritziak, ekarpenak, eta. jasotzea, bai zonaldeko kultura beharrei dagokienez, bai Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoarenganako proposamenei dagokienez.

Lurraldeko bilerak ondorengo ordena jarraitu izan zuen:

1. M^a Camino Barcenilla Tirapuren, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Baliabide eta Garapen Estrategiko Sailaren Nagusiaren **agurra eta ongietorria**.
2. **Parte-hartze prozesuaren azalpena** oro har eta **zehazki parte-hartze bilerarena** (arauak, bileraren antolaketa, etab.)
3. Nafarroako Gobernuak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren eskutik **Zuzendaritzaren Egitasmoaren aurkezpena**.
4. Talde dinamikaren **parte-hartze lana**.
5. Talde lanaren **bateratzea**.
6. Amaiera eta agurra.

3.-PARTE-HARTZAILEAK

PARTE-HARTZAILEAK	
Izen deiturak	Erakundea
CHARO MANGADO ETAYO	AYUNTAMIENTO DE SESMA
GEMMA GONZÁLEZ	AYUNTAMIENTO
PILAR MARTINEZ DE OLCOZ	AYUNTAMIENTO DE VIANA
M ^o SOLEDAD ECHART MARAURI	CONCEJALA DE CULTURA
NATALIA GÓMEZ DE SEGURA CASANELLAS	EDUCADORA SOCIAL Y ANIMADORA SOCIOCULTURAL AYUNTAMIENTO
INMACULADA TORRECILLA URBIOLA	AYUNTAMIENTO DE BARGOTA
MARTA CARO SADABA	AYUNTAMIENTO DE MENDAVIA
REGINO ETXABE DÍAZ	AYUNTAMIENTO ESTELLA-CONCEJALIA DE CULTURA
AURORA PEREZ ZURBANO	AYUNTAMIENTO DE SAN ADRIÁN
M ^a CARMEN RUIZ DE LARRAMENDI OLLO	ASOCIACIÓN TEDER
MARIVÍ SEVILLA MARZO	AYUNTAMIENTO DE LODOSA
JAVIER HERNÁNDEZ SANCHIZ	TALLER DE TEATRO KILKARRAK
PEDRO ECHÁVARRI VEGA	TALLER DE TEATRO KILKARRAK
RAFAEL GURUCHARRI	ATARAPANA
ESTIBALIZ SADABA	AYUNTAMIENTO DE SESMA
EVA FRITSCHI LAGARES	AYUNTAMIENTO DE ALLIN
JAVIER CAAMAÑO ERASO	LOS AMIGOS DEL CAMINO DE SANTIAGO DE ESTELLA
JOSÉ MARTÍNEZ FERNÁNDEZ DE LAS HERAS	LOS AMIGOS DEL CAMINO DE SANTIAGO DE ESTELLA
BLANCA ZARACAIN PÉREZ	
ITZIAR BRIONES GONZÁLEZ	GRUPO DE TEATRO MIRENI

ANTOLAKUNTZA	
Izen deiturak	Erakundea
M ^a CAMINO BARCENILLA TIRAPU	DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA
ABEL DEL REY PALACIOS	EIN
JAGOBA ESAIN AZCONA	EIN

4.-BILERAREN GARAPENA

M^a Camino Barcenilla Tirapuk, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Baliabide eta Garapen Estrategiko Sailaren Nagusiak bertaratu direnak agurtzen ditu eta Abel del Rey, EIN-eko, parte-hartze prozesuaren laguntza teknikoko ordezkaria aurkezten du, prozesuaren azalpen orokor bat eta baita parte-hartze dinamikarena ere egiten duena.

Ondoren, M^a Camino Barcenillak Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Egitasmoaren laburbilketa azaltzen du.

Honen ostean parte-hartze dinamika azaltzen da eta bertaratutakoak bi taldetan banatzen dira bileraren parte-hartze atalari hasiera emateko.

Azkenik bi taldetan landu izan diren gaien erakusketa egiten da.

Lurraldekako bileran egindako aipamen nagusienak ondorengo orrialdeetan azaltzen dira.

1.- ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ESKUALDEAN DAUDEN KULTUR BEHAR NAGUSIAK?
▪ Herri mailan kudeatzen diren kultura gai ezberdinak memento horretako Gobernu taldearen kudeaketari lotuta dago, beraz, hauen eraldatzeak herri horretan kulturak daukan garrantziaren gorabeherak eragiten ditu.
▪ Oro har kulturari garrantzi eskasa eskaintzen zaiola azpimarratzen da, betiere aurrekontuak antolatzerakoan azken lehentasunen artean egoten delarik.
▪ Eskualde eta herri mailan kulturarako helburuak falta dira.
▪ Kultura dinamikaren barne herri ezberdinetako ohiturak integratu beharko ziren.
▪ Kudeaketa eta hedapena direla eta Nafarroako Gobernuak ez ditu behar bezain beste gidalerro ezartzen.
▪ Kultura agenteen formakuntza hobetu beharra dago.
▪ Antolatzen diren kultura ekintza ezberdinen ikusgarritasuna hobetu beharko zen.
▪ Lizarrako Gustavo de Maeztu Museoak desgaitasunak dituzten pertsonetako eskuragarritasuna dela eta arazoak ditu.
▪ Egun eskaintzen diren kultura zerbitzu ezberdinek dituzten baliabide ekonomikoak oro har eskasak direla azpimarratzen da.
▪ Lizarrako liburutegiko ordutegien zabaltzea eskatzen da, batez ere asteburu eta udari begira, ikasketa espaziotzat erabili nahi dutenentzat.
▪ Liburutegien liburu bilduma eta materialak osatu beharko ziren, honetarako aurrekontuen handitzea ulertzen delarik.
▪ Lodosako liburutegiaren kasuan, bai langile, bai baliabideak osatzea beharrezkoa dela aipatzen da.
▪ Egun existitzen den ondare kultural eta arkitektonikoa mantentzearen eta eraberritzearen ardura udaletxeek soilik burutzea oso zaila da.
▪ Egungo eraikuntza historiko askok oztopo arkitektoniko garrantzitsuak dituzte, hauek zuzentzea oso zaila suertatzen delarik, batez ere Vianako Printzeak ezartzen dituen baldintzak betetzea oso konplexua izaten baita.
Lizarrako gazteluen eta juderiaren berreskurapena beharrezkoa da. Vianako kasuan organoaren eta erretailu nagusiak berri behar dira.
▪ Ondare immateriala dela eta, hau berreskuratzeko Lizarran programa jakin bat dagoela aipatzen da, baina egun honek duen aurrekontua oso eskasa dela azpimarratzen da. Aurrekontuak handitu egin behar dira, baita gainontzeko herrientzat ere, hauetako batzuek era larrian behar dutelarik.
▪ Eskoletan ondare immateriala lantzea beharrezkoa da.
▪ Artxibo munizipalak mantentzea eta behar bezala kudeatzea oso zaila da, batez ere mantentze eta eskuragarritasunaz arduratzen diren langileak falta direlako, inork artxiboak kontsultatu nahi baditu nahiko zaila izanda.
▪ Publiko gutxiago duten kultura ekitaldiak promozionatzeko diru laguntzak eskasak direla azpimarratzen da.

1.- ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ESKUALDEAN DAUDEN KULTUR BEHAR NAGUSIAK?
▪ Kultura espazio ezberdinak hobeto probesteko beharra azpimarratzen da, hauen artean espazio eszenikoak. Bai langile, bai aurrekontuen beharra nabaria da kultur etxeetan eta existitzen diren beste espazioetan ere.
▪ Tokiko kolektibo ezberdinek zailtasunak dituzte kultura azpiegitura eta espazio eszenikoetara heltzeko.
▪ Helburu anitzagoak dituzten kultura instalakuntzen beharra azpimarratzen da.
▪ Instalakuntza zehatz batzuk, halanola Mendabiako auditorioa edota Alloko kultura lokala txikiak geratu direla azpimarratzen da. Beste batzuetan, Vianan kasu, baliabide tekniko ezberdinen eskuragarritasuna hobetu beharra dago.
▪ Arlo honetan egungo instalakuntza kulturalen beharren analisia beharrezkoa dela azpimarratzen da.
▪ Kultura ekintzak kaleratu behar dira, herritarrek egunero erabiltzen dituzten espazioetan gerturatu.
▪ Zonaldean antolatzen diren kultura ekintza ezberdinak hobetu diseinatu eta zabaltzeko behar dira, hauetan parte hartzea handitzeko.
▪ Herrietako aire zabaleko zinema bultzatu beharra dago.
▪ Kooperazio sistemen ezartzearen eta udaletxeen arteko koordinazio hobea beharrezkoa da. Kultura eskaintza antolatzerakoan herri bakoitzeko kultura ekitaldiak probestea interesgarria litzateke eta bidenabar kolektibo hauek ezagutaraztea.
▪ Herri txikienetan bizi diren herritarrek kulturarekiko duten eskuragarritasuna dela eta arazo garrantzitsua dago. Herri hauetan ez dago mota honetako zerbitzurik eta ez dago eskuragarritasuna errazten duen sistemarik.
▪ Kulturaren promozio eta kudeaketan gizarte talde guztien (hiritarrak, kultura taldeak, administrazioa, etab.) parte hartzea beharrezkoa da. Herrietako biztanleak gehiago estimulatu behar dira kultura ekintzetan parte har ditzaten.
▪ Interes kulturala duten elementuen artean nekazal kultura integratu beharko zen zonalde honetan duen garrantzia dela eta.
▪ Kultura eskaintza deszentralizatzearen beharra aipatzen da, baita Iruñearekin elkarlanerako eta koordinaziorako sistema hobea baten beharra ere.
▪ Kultura aurrekontuen barne zehazki herri txikiak bereziki kontuan hartu beharko ziren.
▪ Eskualdean antolatzen diren kultura ekintza ezberdinen hedatze eta zabaltze lanetan beharrak sumatzen dira.
▪ Egungo dinamika kulturean arte plastikoan lan egiten duten artistak pisu handiagoa izan beharko zuketela azpimarratzen da. Horrela, artista hauei aukera gehiago eskaini beharko zitzaizkien.
▪ Eskualdean eman den beste errealitate zehatzaren eredu dugu Ayegui. Jatorri herrikoia izanda ere, azken urteetan hazkunde demografiko garrantzitsua jasan izan dute, Lizarratik gertu dagoen

1.- ZURE ABURUZ, ZEINTZUK DIRA ZURE HERRI/ESKUALDEAN DAUDEN KULTUR BEHAR NAGUSIAK?
pisuzko nukleo batean bilakatuz. Hau dela eta, desoreka nabaria sortzen da eskaintzen diren zerbitzuen, azpiegituren eta ekintzen artea, kultur kudeaketa oso zaila egiten duen egoera (honen eredia liburutegia da, herriak baliabide propioz bultzatzen ari dena).
▪ Lizarrako kultura ekintzenganako eskuragarritasuna dela eta, sarreren salmenta sistema asko hobetu litzatekeela azpimarratzen da; izan ere, fisikoki egin behar baita, eskualdeko beste herrietako biztanleek sarrerak erostea zailtzen duena, baita Lizarrako kultura eskaintzaz profitatu ahal izatea.
▪ Nafarroako Gobernuak esfortzu handia egiten du kultura ekintza handiak zabaltzerako garaian, baina ez du gauza bera egite tokiko izaera duten kultura ekitaldiekin.
▪ Eskualde mailan kultura azpiegiturentzako egitasmo bat beharrezkoa da.
▪ Lizarran zinema faltan botatzen dela aipatzen du parte hartzailearen batek.
▪ Diru laguntzen deialdiak kultura ekintzen planifikazio egokia burutu ahal izateko eran egin beharko ziren.
▪ Kultura diziplina ezberdinen inguruko formakuntzarako laguntzak sortu beharko ziren.
▪ Zenbait herritan liburutegiaren funtzioak ludotekaren funtzioekin nahasten dira.
▪ Vianak beharrezkoa ikusten du Vianako Printzea saria bertan ematea.
▪ Kultura ekintzetan zeharkakotasun handiagoa beharrezkoa da.
▪ Kulturak duen karga fiskala handiegia da.

2.- BEHAR HAUEI AURRE EGITEKO ZER MOTATAKO EKINTZA/PROPOSAMEN BURU BEHARKO ZITUEN KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAK?
▪ Ekintza egitasmo baten burutzea zonaldeko kultura ekintzak hobeto koordinazioa helburu izango zuena. Plangintza honetan herri txikiak kontuan hartu beharko ziren.
▪ Eskualde mailan kultura zabaltzeko estrategia baten beharra, teknologia berriak erabiliz kultura agenda bat sortuz, zonaldeko kultura plataforma funtzioa izango zuena.
▪ Zonaldeko kultura kolektibo ezberdinen inguruan informazioa errazteko sistema baten sorrera, hauek planteatutako kultura eskaintzaren barruan probestu ahal izateko. Honekin batera, kolektibo horiek kultura azpiegiturekiko eskuragarritasun hobeagoa izan beharko zuten, bai entseguetarako baita ekitaldietarako ere.
▪ Eskualdean zinema eskaintza zabalagoa proposatzea.
▪ Kulturak jasaten duen karga fiskala txikitu beharko zen eta hau era ekitatiboan banatzea kultura ekintzen luzapen osoen gain
▪ Kultura azpiegiturak sortzeko eta hobetzeko ikerketak eta egitasmoak egitea, elkarrekin erabiltzeko espazio hobeagoak izan ditzaten. Ikerketa hauek herri bakoitzeko azpiegituren hobekuntza nola burutu ikertu beharko zuten.
▪ Kultura instalakuntzen kudeaketarako kogestio sistemak planteatu kolektiboen partetik herri ezberdinetan.
▪ Dicastilloko kultura lokala egokitzea.
▪ Vianako Kultur etxeko ekipamendua hobetu.
▪ Diru laguntzak eskatu ahal izateko Vianako musika eskola egokitzea.
▪ Lizarrako Turismo bulegoa tokiz aldatu, auzitegietan ezarritik, museoan igogailuaren instalakuntza ahalbidetuz.
▪ Eraikin kulturalen oztopo arkitektonikoak zuzentzea.
▪ Gonzalo de Maeztu museoan igogailuen instalakuntza.
▪ Eskualdeko laguntza teknikoak eratzea artxiboen kudeaketa dela eta, bertara jo behar dutenek behar bezala eduki ditzaten. Artxiboak digitalizazioa proposatzen da.
▪ Biztanleriaren artean kultura ekintzen promozio handiagoa egitea.
▪ Gazteei zuzendutako bonoak sortzea, kultura ekitaldietan gastatzeko.
▪ Zonaldeko parte hartze prozesuetarako laguntza teknikoak eskatzen da.
▪ Nafarroako Museo Etnografikoa Lizarran kokatzea (deszentralizazioa), xede honetarako Santo Domingo eta Santa Clara eraikinak proposatuz.
▪ Nafarroako Antzerki Sarea bultzatzea.

2.- BEHAR HAUEI AURRE EGITEKO ZER MOTATAKO EKINTZA/PROPOSAMEN BURU BEHARKO ZITUEN KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIAK?
▪ Zirkuitu bereziak sortzea, bata amateurrentzakoa eta bestea profesionalentzakoa.
▪ Kontserbatorioetan musika ikasketak dauden bezala antzerki eta dantzarako ikasketa ofizialak ezartzea.
▪ Antzerki amateurra bultzatzea diziplina honen estimulu gisa.
▪ Tokiko kultura produkzioa laguntzea kanpoko proiektuak kontratatzea beharrezkoa izan ez dadin.
▪ Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren ekitaldien egutegia antolatzea Iruñetik kanpo.
▪ Herri txikietan aire zabalean kontzertuak antolatzea.
▪ Biztanleriari zuzendutako ikastaro eta hitzaldiak antolatzea herrien formakuntza kulturala bultzatzeko. Ikastaro hauek beste herriein era koordinatuan antolatzea.
▪ Urteroko ikusketa mugikorren programa antolatzea.
▪ Kultura diru laguntzen aldiak hobetzea.
▪ Vianako Printzea sari-ematearen egoitza Vianan ezartzea.
▪ Nafarroako eta herri ezberdinetako historia ondarea bultzatu eta honenen inguruan lan egin.
▪ Vianako elizaren erretaulua eta organoaren eraberritze lanak berriro hastea.
▪ Hainbat herrik komuneko kultura teknikariak izatea.
▪ Aukera kulturalak ezagutzeko kontsulta sistema ezartzea, bai eskualde mailan, bai herri mailan.
▪ Liburutegietan hobekuntzak, batez ere herri txikietakoak, bajan egon daitezkeen edota oporretan dauden langileen ordezkapenak betetzea.

5.- LABURBILKETA ETA AGURRA

Behin lan dinamika amaituta Parte-hartze teknikariak bileran parte-hartu duten pertsonen eskerrak ematen dizkie eta hurrengo parte-hartze tailerretan parte-hartzera gonbidatzen ditu, baita Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiko web orrialdea eta participacioncultura@navarra.es mailaren bitartez ere.

Parte-hartzaileei ebaluazio galdetegia betetzeko eskatu ostean, dokumentuaren berradostuaren osaketaz informatzen zaie hau irakurtzeko inork bertan zuzenketarik egin nahi izango balu.